



Usurbilgo Udala



2015EKO MAIATZAREN 21EAN EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Josu Portu Alzaga J.
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.
Enara Arbizu Irurtia A.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.
Miren Josune Urquia Carrera A.
Josune Urkola Larrarte A.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel A.

Kontuhartzailea: Karmele Lizaso Ubera A.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Ramon Furundarena Salsamendi Jk. eta Ricardo Crespo Rubio Jk.

Arratsaldeko 18:05etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko maiatzaren 21ean, arratsaldeko 18:05etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

***2015/03/31KO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2015eko martxoaren 31ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

***2015/04/24KO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**



Usurbilgo Udala



Batzarkideek, 2015eko apirilaren 24ko ezohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute.

Bertaratu ez zirenak abstenitu egin dira.

Honela izan da bozketa:

Aldekoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Josune Urkola Larrarte.

Abstentzioa: Josu Portu Alzaga, Enara Arbizu Iurrtia, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Luis-mari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

2.- 2015/0001 KREDITU GEHIGARRIEN ALDAKETA DELA ETA, AURREKONTU EGONKORTASUNERAKO HELBURUA ETA GASTUAREN ARAUA UDALAK EZ DITUELA BETETZEN BERRI EMATEA.

Alaitz Aizpuruak azalpenak eman ditu.

Apirilaren 16ko Kontu-hartzailearen txostenean agertzen zen moduan 1. Kreditu Aldeketari buruzko egonkortasun eta iraunkortasun helburuen eta gastu erregelaren ondorengo jakinarazpena dela zehaztu du.

Gogorarazi du 1. Kreditu Aldaketa zubia zela eta egin zela. Zehaztu du kontua zela aurrekontuan sartzen zen edo laurdenaren konpromisoa hartzen zen aurten eta hiru urte jarraian konprometitzen ziren aurrekontuetan sartzeko. Hori dela eta, aipatu du aurrekontuaren egonkortasuna ez duela betetzen, finantza iraunkortasuna betetzen duela eta gastu araua ez duela betetzen.

Horrelako kasuetan Foru Arauak zehazten duela esan du udalbatzari komunikazioa egitearekin nahikoa dela.

Karmele Lizasok puntualizatu du lehendik aurreztuta zegoen diru bat ari direla gastatzen.

2015/0001 Kreditu Gehigarrien aldaketa dela eta, aurrekontu egonkortasunerako helburua eta gastuaren araua Udalak ez dituela betetzen berri eman zaie batzarkideei eta hauek jakitun geratu dira, honela dio testuak:

“2015eko apirilak 16an, kontu-hartzaileak ondorengo txostena burutu zuen, 2015eko 00001 kreditu espedienteari buruz, egonkortasun helburua, iraunkortasun helburua eta gastu erregela aztertuz:



Usurbilgo Udala



TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

1. 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
2. 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
3. Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2015erako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2015. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketa (2015/0001 espedientea: kreditu gehigarriak).

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATEA: Usurbilgo Udala

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

2015/0001 kreditu aldaketa onarpenerako espedienteak **28.838,67** euroko **defizita** du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2015erako ezarritako helburua defizit zero izatea da.

Hori dela eta, 2015. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketaren onarpen espedienteak aurrekontu egonkortasunaren 2015erako helburua **ez du betetzen**.

Finantzen iraunkortasuna

2015eko abenduaren 31n, Udalaren aurreikusitako zor bizia (1.499.419,26), guztira, 2014an likidatutako sarrera arrunten (9.959.968,02) **%15,05** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2014ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean diren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari



Usurbilgo Udala



gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2015erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2015erako aurreikusitako amortizazioak.

2015erako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2015. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketaren onarpen espedienteak finantza iraunkortasunaren helburua **betetzen** du, ez baita aldatzen goian aipatutako %95 hori.

Gastuaren araua

2014ko eta 2015eko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa **%1,36** da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

a1	2014ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	9.489.054
a2	SEC doiketak	0
a3	2014ko interesak	46.174
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2014an	1.200.218
a5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	0
a=a1+a2-a3-a4-a5		8.242.662
b1	2015eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	10.511.309
b2	SEC doiketak	0
b3	2015eko interesak	30.000
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015an	1.004.317
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	
b6	Gastu exekuzioaren doikuntza (IGA Eren 2/2012 legeak 12. artikuluan araututako gastu erregela ezartzeko gida, 1.13 atala)	0,88



Usurbilgo Udala



$b=b1+b2-b3-b4-b5$		8.354.521
$c=(b/a-1)*100$		1,36

Gastu exekuzioaren doikuntza (IGA Eren 2/2012 legeak 12.artikulan araututako gastu erregela ezartzeko gida, 1.13 atala)

2012, 2013 eta 2014.urteetako gastu exekuzioaren portzentajeak %78, %96 eta %91 izan dira. Beraz, gastuen eragiketa ez finantzarioen kredituen exekuzioaren portzentaje hauen media aritmetikoa, azkeneko hiru urteko exekuzioak kontutan hartuz %88 a izan da.

Aurreko kalkulua egiteko kontuan hartu dira 1-7 kapituluetakoko gastuen aurrekontuaren aurrekontu aurreikuspenak, eta 1-7 kapituluetakoko gastuen aurrekontuaren obligazio onartuak.

2015erako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa %1,3 baino txikiagoa izatea da. Hori dela eta, 2015. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketaren onarpen espedienteak 2015erako gastuaren araua, gutxigatik bada ere, **ez du betetzen**.

1.3.- ONDORIOAK

2015. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketaren onarpen espedienteak betetzen du finantza iraunkortasunaren arloan 2015erako ezarritako helburua. Aldiz, ez ditu aurrekontuen egonkortasun helburua eta gastu erregela betetzen. Hau dela eta, kontuan izan behar ditugu:

-2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena:

5.4 artikulua (2014/13 Foru Arauak amendako erredakzioa): "Era berean, gastu araua betetzen ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaizkete Udaltzarrari edo organo baliokideari, Kontu-hartzaitzako organoak sinatuta, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- Aurreko urteko ekitaldiaren likidazioan edo, horren ezean, bere aurreikuspenean gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezko garbia positiboak izatea.
- Urteko zor publikoko helburua betetzea.
- Urteko defizit helburua betetzea edo, hala badagokio, ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena izatea".



Usturbilgo Udala



-Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2015erako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera:

1. erregela: "Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

3. erregela: "Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru hiru paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Gure kasuan, defizita diruzaintzaren gerakinaren erabilpenak sortu du. Erabilitako kopurua: 130.341,93 € (eta defizita 28.838,67 eurokoa baino ez da). Honen eraginez, gastu erregela kalkulatzeko erabilitako gastu konputagarria handitu egin da, baina diru-sarreretan ez dagokio horrelako gehikuntzarik islatzea (VIII. Kapitulu jasotzen baita erabilitako diruzaintzako gerakina, baina, gainera, soilik behin betiko aurrekontuan eta inoiz ez onartutako eskubideetan).

Berez, diruzaintzako gerakina Udalak sortutako aurrezkoa izango litzateke, diru-sarreraren eta gastuen arteko diferentzia, sortutako ekitalditik aurrera gastu berriak edo handiagoak finantzatzeko aukera emango duena.

Ondorioz, ezin da defizit estrukturala bezala onartu aurretik lortutako gerakinaren erabilpena. Hori baino, egokiagoa izango litzateke esatea gerakina likidazioa egiteko momentuan lortutako aurrekontu superabita dela.

Hortaz, aipatutako jarraibidea betez, txosten hau Udalbatzarrera bideratzen dut, egoeraren berri eman eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Horrela beraz, Ogasun Batzordea osatzen dutenak, Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Jose Ramón Furundarenaren aldeko botoekin eta Luis Mari Ormaetxea eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Udalbatza Osoari proposatu diote gehiengoaren aldeko iritziarekin:



Usurbilgo Udala



Udalbatzarrari berri ematea: 2015/0001 kreditu gehiagarrien aldaketa dela eta, Udalak ez dituela betetzen aurrekontu egonkortsauerako helburua eta gastuaren araua, kontu-hartzailearen txostenean jasotakoaren arabera.”

3.- USURBILGO UDALAREN 2014 EKITALDIKO KONTU OROKORRA BEHIN BETIRAKO ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak azaldu du erreklamazioak aurkezteko egon den 15 eguneko epean ez dela inolako erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, oraingo honetan proposatzen dela dio 2014 ekitaldiko kontu orokorra behin betirako onartzea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegira igortzea.

Karmele Lizasok zalantzarik dagoen galdetu du.

Inork ez du zalantzarik azaldu.

Batzarkideek, Kontuen Batzorde Bereziak egindako proposamena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honela dio testuak:

“21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak arautzen duen eran, Kontuen Batzorde Bereziak apirilaren 21ean eman zuen 2014ko Kontu Orokorrari buruzko txostena (aldeko bozkak: Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Joxe Ramon Furundarena; abstentzioak: Luis Mari Ormaetxea eta Josune Urkola). Kontu Orokorra, aipatutako txostenarekin, jendaurrean azaldu da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko apirilaren 27an argitaratua izan denetik hasita 15 egunetan. Epe honetan ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Hau guztia dela eta, Korporazioaren Osoko Bilkuraren onespenerako jartzen da, onetsi ahal izan dadin, beti ere uztailaren 31^a baino lehen.

Hau horrela, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengo osoz:

ERABAKIA

1.-Usurbilgo Udalaren 2014 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betirako onartzea.

2.-Behin betiko izaeraz onartutako Kontu Orokorraren Espedientea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea, dagozkien azterketak egiteko.”

Bozketa honela izan da:



Usurbilgo Udala



Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Eustakio Arrojeria Eguzkiza.

Abstentzioa: Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

4.- 2015EKO ZERGA ORDENANTZEN ALDAKETA BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak adierazi du orain arte ordenantza fiskalak abenduan onartu izan direla, baina gogorarazi du 2014ko abenduan aipatu zutela bi bereizketa egingo zituztela. Batetik, urteko osoko zerga, prezio eta tasak eta, bestetik, ikasturteei dagokiena, hau da, irailetik irailera markatzen direnak edo udako prezioak. Abenduan azken hauek ez zirela onartzera eraman eta orain ekartzen direla esan du.

Hiru bloke direla zehaztu du: haur eskola, kiroldegiko ikastaroak eta udajolas.

Gaia diktaminatu gabe datorrenez, hasteko gai-zerrendan sartzea berretsi behar da.

Bozketa egin da eta gehiengoz gai-zerrendan sartzea erabaki da. Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Eustakio Arrojeria Eguzkiza.

Abstentzioa: Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Behin gai-zerrendan sartuta, Alaitz Aizpuruak zehaztapenak eman ditu.

Bai haur-eskolako hezkuntza zerbitzuen prezioak bai kiroldegiko denboraldiko ikastaroen prezioak mantentzea proposatzen direla adierazi du. Udajolaseko tasek, berriz, iguera txiki bat izan dutela esan du.

Batzarkideek, proposamena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Orain arte Zerga Ordenantzak urtean behin bakarrik aldatzea/eguneratzea ohitura izan bada ere, kontuan izanik hainbat zerbitzu edo jardura ikasturtekoak direla (eta, ondorioz, ez datozela bat urte naturalarekin), departamentuan egokitzat eman da urtean bitan aztertzea. Honela, iraila inguruan urte naturalarekin bat datozen kontzeptuak aztertuko ditugu, eta martxoan/apirilean ikasturtekoak (irailan martxan jartzen direnak) eta hauekin batera, udako jardura puntualak.



Usurbilgo Udala



Horregatik aurkezten dira momentu honetan, ondorengo aldaketa proposamenak:

- Haur eskolaren hezkuntza zerbitzua: 2015/2016 ikasturtea.
- Kiroletako ikastaroak: 2015/2016 denboraldia.
- Udajolas jarduera (2015).

(Honekin batera, departamentuburuek egindako proposamenak).

Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengo osoz:

E R A B A K I A

LEHENA.- 2015eko Zerga-Ordenantzen aldaketa behin-behingo onartzea.

BIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunetan zehar interesatuek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

LAUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean."

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Eustakio Arrojeria Eguzkiza.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

5.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-30 (ZUMARTEGI) ERE-MUAREN ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, BERTAKO ERABILERA EGUN FINKATUTA DAUDENETARA EGOKITZEKO.

Alkateak gaiari buruzko azalpenak eman ditu.



Usurbilgo Udala



Zehaztu du Arau Subsidiarioek Zumartegi eremuan erabat debekatzen zutela jarduera kimikoa duten enpresei baimena ematea. Ikusirik urbanistikoki eta errealitatea ez zetoze bat, Igepak enpresak ezaugarrien fitxaren aldaketa eskatu zuela adierazi du. Aldaketa horrek gaur egun finkatuta dagoen enpresari bakarrik eragiten diola zehaztu du, hau da, Igepak enpresari.

Aldaketa honekin segurtasun juridikoaren printzipioa finkatu nahi dela esan du, beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko, udalak baimenak eman ahal izateko eta enpresaren jarduera babesteko.

Prozedurari buruz adierazi du martxoko plenoan hasieraz onartu zela, jendaurrean jarri zela hogei egunez eta ez zela inolako alegaziorik aurkeztu. Hirigintzako batzordetik pasa ondoren, berriz ere plenora datorrela esan du behin betiko onarpena jasotzeko.

Behin betiko onartu ondoren, aldaketa hau Foru Aldundira igorriko dela esan du, bertako hirigintzako plangintzan gordeta gera dadin. Bestalde, ohiko egunkarietan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela gaineratu du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen diktamena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0065

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, IGEPAK, S.A. enpresak, A-30 (Zumartegi) eremuko hirigintza ezaugarrien fitxa industrialdean egun finkatuta dauden erabileratara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETArako beharrezko dokumentua aurkeztu du. Dokumentua Jose Miguel Toledo Etxepare arkitektoak idatzi du.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Aurkeztutako dokumentuaren memoriak honela zehazten du Aldaketaren edukia eta helburua:

Dokumentu honen sarreran aipatu den bezala, hemen aurkeztu den arau aldaketa puntual honek, Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren A-30 (C/SE) ZUMARTEGI esparru urbanistikoaren EZAUGARRIEN FITXAREN (TESTUAK) edukiari eragiten dio soilik.



Usurbilgo Udala



Adostutako aldaketa bat dator "Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko" ekainaren 3ko 105/200 Dekretuko 30. Artikuluarekin, Antolamendu xehaturen aldaketari buruzkoarekin. Bertan honakoa esaten da:

"Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Pian Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilia aldatu ahal izango da. Izapideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. Artikuluetan araututakoa izango da."

"EZAUGARRIEN FITXA"-ren edukia A-30 ZUMARTEGI esparruaren egungo eraikuntza eta erabileren baldintzetara egokitzea da helburua, bada udal jarduerarekiko eta aipatutako esparruan emandako udal baimenenen aurrekariarekin koherentziaz jokatzeko. Horretarako beharrezkoa irizten da "1.-IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK eta "3.- ERABILERAK" atalei dagokien testuaren zati bat aldatzea, idazketa argiagoa eta zehatzagoa izateko helburuarekin, eta horrela, errealitate honetarako urrun dauden interpretazioei lekurik ez uztea.

Aldaketaren komenitasun eta egokieraren eta justifikazioari dagokionez berriz, honela zehazten da:

Proposatutako aldaketa puntualarekin ezaugarrien fitxa zuzendu nahi da, urte guzti hauetan zehar izan den udal borondatearen aurkako interpretaziora eraman ditzaketen aspektuetan. Udal borondate hori eman diren hainbat baimenetan gauzatu da, zeinak A-30 (C/SE) ZUMARTEGI eremuan ezagutzen dugun eraikuntza eta erabileren errealitate finkatu bat osatu duten.

Begibistakoa da zehaztapen hori aldatu egin behar dela, kontuan hartuta IGEPAK, S.A.,-ren enpresa jardueraren aurrekariak Usurbilgo A-30 (C/SE) ZUMARTEGI esparruan; zeina Udalaren onarpenarekin garatu izan da Usurbilen 1971. Urtetik hona. Horretarako, baimen ugari eskatu eta eman zaizkio (1996, 1997, 2001, 2008, 2009); baita 2005. Urtetik gaur egun arte indarrean dagoen araudiarekin ere (2005-02-28ko G.A.O. 39.zkia.)

Ekimen honen komenitasun eta egokiera, beraz, erabat justifikatua geratzen da aurretik aipatutakoarekin.

Horrekin guztiarekin segurtasun juridikoaren printzipioa finkatu nahi da; beharrezkoa dena bai esparruko industria jardueren garapenarentzat, baita udal jarduerarentzat ere, zeinak aurrekari administratiboekin eta orain arte agertutako borondatearekin koherentea izan behar duen.

HASIERAKO ONESPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA

Hala, 2015eko martxoaren 31ean, Plenoak, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENDABIZI: Eremuko hirigintza ezaugarrien fitxa Zumartegi industrialdean egun finkatuta dauden erabileratara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.



Usurbilgo Udala



Hartutako erabakiaren arabera, espedientea jendaurrean jarri zen hilabetez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Berria: 2015-04-02
- Gara: 2015-04-08
- El Diario Vasco: 2015-04-07
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (66. zenbakia): 2015-04-10

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean, **ez da inolako alegaziorik aurkeztu.**

LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak, Nagore Sarasola Otermin andereak, 2015eko otsailaren 24ean emandako txostenean zehaztu zuen jarraitu beharreko izapidetzea:

LEGE-TXOSTENA

GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea, bertako erabilerak egun finkatutako daudenetara egokitzeko

(...)

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira **eman beharreko pausu nagusiak:**

- Hasierako onespena udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Aldaketa 20 egunez jarriko da jendaurrean, GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Aldaketak funtsezkoak balira, berriro ere haserako onespena emango litzaioke testuari eta jendaurrean jarriko litzateke.

- **Plenoak**, alegazioak ikusita, behin betiko onartuko du dokumentua. Sei hilabeteko epea ezartzen da horretarako, behin hasierako onespena eman ondoren.
- Antolamendu Xehatuaren aldaketa Foru Aldundira igorriko da, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin. Behin betiko onespena GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuko da eta bertan adieraziko da hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela. Antolamendu Xehatuaren aldaketa GAOean argitaratu eta handik 15 lanegunetara sartuko da indarrean.



Usurbilgo Udala



Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko otsailaren 24ean
Udal idazkariak
Nagore Sarasola Otermin

Gauzak horrela, Hirigintza Batzordeak, 2015eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua eta Jone Urdampilletaren aldeko botoekin eta Luis Mari Ormaetxea eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Plenoari egindako erizpena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengo osoz:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Eremuko hirigintza ezaugarrien fitxa Zumartegi industrialdean egun finkatuta dauden erabileratara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETAREN behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

BOSGARRENA: Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Iurtia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Eustakio Arrojeria Eguzkiza.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:15ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.